

LAUBIDE

FELIX  
IBARGUTXI

# TXIOLARI SAIATUENAK

## Codesyntax enpresa eibartarrak Twitterreko iazko euskarazko jarioa aztertu du. Ia beti euskaraz egiten duten lagunak 2.500 omen dira

**G**urean zenbat lagun aritzen dira euskaraz Twitterren? Hau da, zenbat lagunekoa da euskal txiolarien komunitatea? Zein dira aktiboena? Hori dena aztertu du Codesyntax enpresak, iazko jarduna hartu duelarik kontuan: 15.000 txiolariren 6,2 milioi txio, hain zuzen ere.

«Esan dezakegu gutxienez 13.000-15.000 euskal txiolari daukela. Ia beti euskaraz ari direnak 2.500 dira -txioen %75 baino gehiago euskaraz egin dutenak-. Gutxi edo asko dela irudituko zaio batari edo besteari, baina nahiko ziur esan dezakegu euskara dela Twitterren bizien dagoen hizkuntza txiki edota gutxitua. Gutxienez, komunitate trinko eta aktiboena daukana», adierazi dute Codesyntaxekoak.

15.000 txiolariren txioak aztertu dituzte. Guztira 6,2 milioi txio bota dituzte guztien artean, %42 euskaraz. Egunean, batez beste, 7.000 txio euskaraz. Txiolarien profilari dagokionez, %66 gizonezkoak dira eta %34 emakumezkoak. Gehien goizez txiokatzen dute euskal txiolariak, eta asteazkenetan».

Milaka txiolari horien artean, 2016an aktiboena izan direnak ere zerrendatu dituzte. Zerrendako lehenengo tokietan daude, espero bezala, euskarazko hedabide nagusien Twitter kontuak. Txiolari arruntei dagokionez, hauek dira 2016an zehar aktiboena izan diren txiolariak -euskarazko txio zuzenak zein birtxioak kontuan hartuta-: txargain, birasuegi, inigosuspe, Suagaar, txerren, JoneEtxeberria, UxuneM, ZEtxeburua, protoeuskaldun eta AnaisNi.

### Langileenak

Azterketaren arabera, **Leire Narbaiza Arizmendi** (Txargain) eibartarra da euskal txiolari aktiboena. 2007tik ari da. Eibarren jaioa, Getxoko udal euskaltegian ari da lanean. Galdetu diot berarentzat Twitter zer den, eta hau adierazi dit: «Munduari leiho bat zabaldu, komunikabide konbentzionalen agertuko ez denaren berri izan, informazioa jaso, konpartitu, komentatu, txantxak egin, barre ere bai, sumindu sarriegitan... hori guztiori aurkitzen dugu Twitterren. Gainera, euskal komunitatea trinkotzeko eta elkar eza-gutzeko aukera ere ematen digu. Euskaraz. Guretako ezinbestekoa,

beraz». 'Kalamuati Txargainera' bloga gobernatzen du baita ere Leire Narbaizak. Besteak beste, hizkuntzaren eta emakumetasunaren inguruko gaiak jorratu ohi ditu.

Saiatuenen rankinean, bigarrena **Beñat Irasuegi** da, hau ere 2007an hasitakoa. Talaios Kooperatiban langile kooperatibista da,

eta «artisaun marxista», bere hitzetan. «Eguneroko tresna da niretzat Twitter, beste hainbat tresna digital bezala -esan dit-. Nire kontua batez ere euskaraz erabiltzen dut eta batez ere euskaraz dauden txioen RTak egiten ditut, baina modu naturalean, ez da zerbait erabat pentsatua, beste edozein hizkuntzarako edukiak ere

zabaltzen ditut. Lanagatik edo aktibismoagatik garrantzitsuak diren ildo batzuk ezarri eta sistematikoki zabaltzen ditut, medio gutxi ditugunentzat komunikazio-tresna eraginkorra iruditzen zait eta, batez ere loturak egiteko».

Hirugarrena **Iñigo Susperregi** da. Berak eskegitako definizioa:



Leire Narbaiza.



Beñat Irasuegi.



Uxune Martinez.



Zigor Etxeburua.



Ana Isabel Morales.



Iñigo Susperregi.



Xabier Landabidea.

«Realzale amorratua, euskalzalea, ezkertiarra, abertzalea eta independentista!». Duela gutxi, Euskal Telebistan agertu da, Real Sociedaden elastiko bilduma handia duelako etxean.

Laugarrena, **Suagaar** delakoa, ezezaguna dugu. Garikoitz omen du izena. Izenari erantsitako marrazkian argi erakusten du nondik nora joan nahi duen: agure bat ageri da, bizkarrean ikurrina eta lepoan bueltan zepo handia, liburu itxurakoa, izenburu hau daukana: 'Ley de España'.

Bosgarrena, Txerren izenez sinatzen duena, **Xabier Landabidea Urresti** dugu, 1981ean Bilbon jaioakoa, eta han jarraitzen duena. Irakasle ari da da Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuan. Gainera badu blog bat: 'Hau ez da blog bat'.

Seigarrenak, **Jone Etxeberria**, hau hartu du lelotzat: «Galtzeko dugun gauza bakarra kateak dira, irabazteko, berriz... mundua dugu irabazteko. Tres voltes rebel!!!». EH Bilduko Sozioekonomia Lantaldeko kidea da. Feminismoa, ekologia eta abertzaletasuna ditu ipar, ikus daitekeenez.

Zazpigarrena **Uxune Martinez** dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria. Zientzia du interesgune, eta Zientzia Kaiera izeneko blogean ere aritzen da. «Twitter lanerako gailua da niretzat -esan dit-. Batez ere, termometro, iturri eta bozgorailuzat daukat berori. Gizartearen ezaugarrien, kezken, nondik norakoaren eta aurreiritziak neurtzeko termometroa da. Nire lehen informazio-iturria da, goi-zero kontsultatzen dudana egunari hasiera emateko. Eta zientziaren zabalkunderako bozgorailu eraginkorra da, haren bidez lortzen ditugu, esaterako, Kultura Zientifikoko Katedrako blogetan bisitari gehienak».

Zortzigarrena, **Zigor Etxeburua**. Euskara eta independentzia ditu iparrorraztat. Gipuzkoako Foru Aldundia EH Bilduk gobernatu zue-nean, Euskara zuzendari izan zen.

Bederatzigarrenak, **Protoeuskaldun** hitzaz sinatzen duenak, euskara eta hizkuntzak ditu interesguneetako bat.

Eta zerrendako hamargarrena **Ana Isabel Morales** itzultzailea dugu (AnaisNi). «Bost urte daromat Twitterren eta esan dezaket bizitza aldatu zidala, onerako», esan dit. «Bereziki interesatzen zaizkit hizkuntzak, itzul-pingintza eta interpretazioa, literatura, feminismoari eta generoari lotutako gaiak... Twitterri esker zenbait adiskide berri egin dit, aspaldiko harreman batzuk berpiztu, eta elkarlan ederretarako aukerak aurkitu. Nire podkasta ezagutzera emateko ere balio izan dit».

fibargutxi@diariovasco.com